

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeko eta hiriaren irudia helmuga-turistiko jasangarri gisa promozionatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzeko laguntzen udal programaren deialdia eta oinarri arautzaileak, 2026. urtea

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza ALHAOren 88. zenbakian argitaratu zen (2023ko uztailaren 28koa, ostirala), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 8an, honako dirulaguntzaren deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi zituen: "Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeko eta hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatuko duten turismo- produktu eta -esperientzia berriak sortzeko eta sustatzeko laguntzen 2026. urterako deialdia eta oinarriak".

Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik — kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berariazko oinarri arautzaileen publikitateari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen da deialdiaren edukia.

Arau-esparrua

Honako hauen pean izango da Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeko eta turismo- produktu eta -esperientzia berriak sortzeko eta sustatzeko laguntzen 2026. urterako deialdia: deialdiaren beraren oinarriak eta dirulaguntzen ordenantza orokorrak (ALHAO, 88. zenbakia, 2023ko uztailaren 28koa). Ordenantza horretan aurreikusi gabekoetan, 38/2003 Legea (azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko orokorra) eta haren erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia) aplikatuko dira, bai eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoa (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek.

Plan horrek «Turismoa sustatzeko eta hiria sustatzeko ekintzak» dirulaguntza-ildoaren barruan sartzen ditu laguntza horiek (08_08_v02 fitxa). Ildo horren helburu estrategikoa da Vitoria-Gasteiz sustatzea biltzar-hiri eta helmuga turistikoa jasangarri gisa.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da zehaztea zer baldintzari jarraituz emango zaizkien norgehiagoka bidezko konkurrentzia bidez laguntzak pertsona fisikoei, juridikoei eta legez eraturako entitateei Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeke eta turismo- produktu eta -esperientzia berriak sortzeko eta sustatzeko.

Honako hauek dira laguntza horien bidez lortu nahi diren helburu espezifikoak:

- a) Hiriaren jarduera ekonomikoaren onerako diren jarduerak babestea.
- b) Berariaz indartzea turismo-eskaintza eta turismo-eskaintzak jarduera ekonomikoarekin duen lotura.
- c) Hiritik kanpo proiektzioa duten jardueren eskaintza bultzatzea.
- d) Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea.

Gehiago indartu nahi dira era honetako proiektuak:

- Jatorri nazionala eta nazioartekoa duten pertsonen parte-hartze handia dutenak.
- Ostatu-gauen kopuru handia sortzen dutenak.
- Turismo-jarduera apaleko egunetan gertatzen direnak (desestazionalizazioa).

Hiru laguntza-ildo daude:

1. ildoak: Vitoria-Gasteizen egitekoak diren biltzarrak antolatzea.

Vitoria-Gasteizen egiten diren biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak edo sinposioak (aurrerantzean, biltzarrak) antolatzeke izango dira dirulaguntzak.

2. ildoak: Vitoria-Gasteizen egitekoak diren ekitaldiak antolatzea.

Diruz lagunduko da ekitaldiak antolatzea, originaltasunagatik eta ezaugarriengatik beste eskualde edo herrialde batzuetako bisitariak erakartzen dituztenak eta kanpoan oihartzun handia dutenak.

Dirulaguntza jaso ahal izango dute kirol- edo kultura-jarduerak, baldin eta Gasteizen kanpo-proiektzio handia eragiten badute eta kanpoko parte hartze handia badaukate (gutxienez 100 parte-hartzaile Arabako Lurralde Historikotik kanpokoak).

3. ildoak: Hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa promozionatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzea.

Diruz lagunduko da turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortzea, bai eta haiek sustatu, merkaturatu, hedatu eta komunikatzeko eta publikoak erakartzeko ekintzak ere.

Lehenetsuna izango dute nazioko eta nazioarteko merkatuetan Vitoria-Gasteizen irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatzen duten produktu eta esperientzia turistikoa jasangarri guztiak. Ildo horretan, hainbat esperientzia mota azpimarra daitezke: ekoturismoa eta natura, nekazaritza-turismoa, kultura- eta sormen-turismoa, komunitate-turismoa edo turismo birsortzailea.

Horregatik, «esperientzia-paketeak» sortzea baloratuko da, publiko guztientzako natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa integratzen dutenak: materialak berrerabiltzen dituzten sormen-tailerrak, jolasen eta ginkanen bidez lankidetza eta hiriarekiko konexioa sustatzen duten ekoesperientziak, bai eta team building jasangarriko jarduerak ere (esaterako, ihes-room kalean), jolasaren eta aurkikuntzaren bidez tokiko kultura ospatzen duen eta ingurumen-inpaktu minimoa sortzen duen eredu bati laguntzen diotenak, hiriko eguneroko bizitzan parte-hartzaileak integratuz. Horietaz gain, udalerrri osoa hartzen duten zentzumen-esperientzien produktuak, edo natura, tradizioa eta jasangarritasuna lotzen dituzten jarduerak aurkez daitezke.

Gainera, lehentasuna emango zaie enogastronomiarekin, ekoturismoarekin, kulturarekin eta kirolarekin lotutako produktuei.

3. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren proiektuek jaso ahalko dute dirulaguntza.

2026ko abenduaren 31ra arte egindako gastuak eta 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen jaulkitako eta ordaindutako fakturak bakarrik lagunduko dira diruz.

1. ildo: Vitoria-Gasteizen egitekoak diren biltzarrak antolatzea.

1. Hirian etorkizunean egin daitezkeen ekitaldi edo biltzarretarako hautagaitza-proiektuetatik eratorritako gastuak: esaterako online eta offline diseinu-lanak, aurkezpenetarako lekualdatze-gastuak edo alderantzizko eta zuzeneko jardunaldietan izena ematea (kasu horretan, entitate sustatzailea eta antolatzailea zehaztu beharko dira).

2. Biltzarrekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak: ikus-entzunezko baliabideak, tresna teknologikoak, cateringa, itzulpengintza eta interpretazioa, laguntzaileak, garraioa, idazkaritza teknikoa, zerbitzu eta jarduera osagarriak, adituen ordainsariak eta beste.

3. Biltzarrean parte hartzen duten hizlari, aditu eta aurkezle/moderatzzaileen bidaiei, ostatuari eta dietei dagozkien gastuak (biltzarkideenak ez).

4. Biltzarrerako erabiliko diren espazioen alokairu-gastuak eta zeharkako gastuak, kanpo geratzen dira espazio edo areto propioak eta espazio eta eraikin publikoen alokairuagatik ordaindutako tasak.

5. Promozio-materiala diseinatu, landu, maketatu eta itzultzeko gastuak: kontzeptu honen barruan onartuko dira diseinu grafikoari dagozkion gastuak, baita eskuorri, kartel, argazki eta bideo banku, eta bideoei loturikoak ere, web-diseinua, bannerrak, web orriak, frameak eta pop-upak sortzearekin loturikoak, eta beste komunikazio-elementu batzuk lantzeari dagozkionak ere.

6. Langileen gastu propioak (soldata eta gizarte-kotizazioak), laguntza osoaren ehuneko 10era arte. Deialdi honetara aurkeztutako proiektuan izandako dedikazioa justifikatu beharko da.

2. ildo: Vitoria-Gasteizen egitekoak diren ekitaldiak antolatzea:

1. Aipaturiko epean egin diren ekitaldiak erakartzeko, sortzeko, sustatzeko eta gauzatzeko gastuak.

2. Ekitaldiarekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak: ikus-entzunezko baliabideak, tresna teknologikoak, cateringa, itzulpengintza eta interpretazioa, laguntzaileak, garraioa, idazkaritza teknikoa, zerbitzu eta jarduera osagarriak, adituen ordainsariak eta beste.

3. Ekitaldian parte hartzen duten hizlari eta adituen bidaia-, ostatu- eta dieta-gastuak (ekitaldian izena eman dutenena ez).

4. Berariaz ekitaldirako erabiliko diren espazioen alokairu-gastuak eta zeharkako gastuak, kanpo geratzen dira espazio edo areto propioak eta espazio eta eraikin publikoen alokairuagatik ordaindutako tasak.

5. Promozio-materiala diseinatu, landu, maketatu eta itzultzeko gastuak: kontzeptu honen barruan onartuko dira diseinu grafikoari dagozkion gastuak, baita eskuorri, kartel, argazki eta bideo banku, eta bideoei loturikoak ere, web-diseinua, bannerrak, web orriak, frameak eta pop-upak sortzearekin loturikoak, eta beste komunikazio-elementu batzuk lantzeari dagozkionak ere.

6. Langileen gastu propioak (soldata eta gizarte-kotizazioak), laguntza osoaren ehuneko 10era arte. Deialdi honetara aurkeztutako proiektuan izandako dedikazioa justifikatu beharko da.

3. ildoak: Hiriaren irudia turismo-helmuga jasagarri gisa promozionatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzea.

1. Produktuak eta esperientziak sortzeko gastuak, fase guztietan: diseinua, abian jartzea eta ebaluazioa. Kontzeptu honetarako onartuko dira zerbitzu tekniko eta profesionalen fakturak, baliabide material, digital edo teknologikoengatik: material inprimatuak, infografiak, argazkiak, bideoak, aplikazioak, bisita gidatuetarako audio-sistemak (ez dira diruz lagunduko kutsadura akustikoa sortzen duten sistemak), mugikortasun jasagarriko elementuak, orientazio geografikokoak, irisgarritasuna errazteko tresnak eta abar.

2. Promozioa online egiteko gastuak: kontzeptu honen barruan onartuko dira marketin programatikoko ekintzak, bilatzaileetako publizitatea (SEM eta SEO), email marketina, sare sozialetako publizitatea (Facebook, Youtube eta Instagram), edukien marketina (branded content eta inbound marketing), zerbitzu turistikoak erreserbatzeko online plataformen sustapena eta kudeaketa (Civitatis, GuruWalk, GetYourGuide, Viator eta abar).

3. Offline sustapenari dagozkion gastuak: euskarri inprimatuak, ekitaldiak komunikabideetan edo beste euskarri batzuetan zabaltzea. Horietaz gain, prentsa, telebista edo irrati elkarriketa, programa edo artikuluen gastuak. Hedapen digitala lehenetsiko da material suntsikorren aurretik.

4. Produktu eta esperientzia turistiko berriak ezagutzeko hirira datozen preskriptoreen bidaia-, ostatu-, eta dieta-gastuak, baita produktu eta esperientzia turistiko berrien sortzaileenak ere, haiek promozionatzeko ekintzak (azokak, aurkezpenak eta abar) egiteko hiritik kanpo doazenean.

5. Langileen gastu propioak (soldata eta gizarte-kotizazioak), laguntza osoaren ehuneko 10era arte. Deialdi honetara aurkeztutako proiektuan izandako dedikazioa justifikatu beharko da.

4. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko:

1. Deialdiaren 3. oinarrian espresuki diruz lagundu daitekeen gastutzat jasota ez dagoen beste edozer.

2. 1. eta 2. ildoetan, ez dira diruz lagunduko honelako ekintzen antolaketa eta sustapena: galak eta desfileak; sariak; lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza aratuarekin lotutako jarduerak; ekitaldi akademiko, erlijiozko, politiko edo sindikalak, edo entitate eskatzailearen bazkideentzat soilik egindako proiektuak.

3. Enpresa/entitate onuradunen ohiko funtzionamendu-gastuak.

4. Bulegoko informatika-ekipoak eta telefonia mugikorra.

5. Opariak.

6. Merchandisinga, salbu eta berariaz biltzar, turismo-ekitaldi edo -produktu baten kanpo-sustapenerako bada eta hala justifikatzen bada.

7. Inbertsioak eta/edo amortizazioak.

8. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 30. artikuluan kanpo utzitakoak.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (www.vitoria-gasteiz.org) iragar-ki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitara-tuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenba-tekoa edo ukatzeko arrazoia ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko aben-duaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak

Pertsona fisikoak, juridikoak nahiz legez eratuta dauden entitateak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.

— Proiektuak honako irizpide hauek guztiak betetzen baditu ez da eskatuko egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen izatea. Irizpide horiek deskribapen-memorian zehaztu eta justifi-kazioan frogatu beharko dira:

— 1. eta 2. ildoetarako:

1) Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 150 biltzarretarako / 300 ekitaldietarako.

2) Parte-hartzaileen jatorria: gutxienez ehuneko 30a Euskal Autonomia Erkidegotik eta haren probintzia eta erkidego mugakideetatik kanpokoak.

3) Gutxieneko iraupena: 2 egun jarraian biltzar eta ekitaldietarako.

— 3. ildorako:

a) Produktu edo esperientzia turistiko berria Vitoria-Gasteizen ezartzea.

b) Ez egotea Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2. artikuluan jasotako zirkunstantzie-tako batean.

c) Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, korporazio publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

d) 2. ildoaren kasuan, kirol- edo kultura-jarduerak badira osoki, ezinbestekoa da jarduera horiek Vitoria-Gasteizen kanpo-proiektzio handia eragitea eta kanpoko parte-hartze handia izatea (gutxienez 100 parte-hartzaile, Arabako Lurralde Historikotik kanpokoak). Alderdi hori deskri-bapen-memorian zehaztu beharko da, eta, gainera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da (10. oinarria).

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2026ko udal aurrekontuko 2026/0826.4333.47104 partidaren kontura —“Toki garapene-rako bulegoa – Hiriaren sustapena” — finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak; 130.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura, honela banatuta:

— 1. ildoak: 60.000,00 euro, biltzarretarako.

— 2. ildoak: 40.000,00 euro, ekitaldietarako.

— 3. ildoak: 30.000,00 euro, produktu edo esperientzia turistikorako.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, aurrekontu-zuzkidura hori handitzeko modua izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako dirulaguntza-partidetan (guztiak kontuan hartuta) krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, kreditu erabilgarria badagoelako deklarazioa egin beharko da, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan (deialdia argitara eman zen bitarteko berberetan).

Eskabideak balioetsi ondoren, haiek ebatzi eta gero ildoetako batean edo gehiagotan erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberako kopurua beste ildoei gehitzeko proposatu ahal du balioespen-batzordeak. Soberako hori esleitzeko hurrenkera hau izango da:

- 2. ildoan (ekitaldiak) edo 3. ildoan (produktua) soberakinik badago, 1. ildora (biltzarrak) pasako da.
- 1. ildoan soberakorik badago, 3. ildora pasako da, eta, kopuru hori gehitu ondoren 3. ildoan soberakina badago, soberakina 2. ildora pasatuko da.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko hauek.

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Laguntza-ildo hau bateraezina da udalak edo berari atxikitako organismoek xede, proiektu edo jardura bererako ematen dituen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin (hitzarmena, kontratua, dirulaguntza...).

Bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio batzuek nahiz edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ematen dituen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du gaingitu jardueraren kostua, ez bakarrik ez dirulaguntzaren xedeak sortutako orotarako diru-sarrerekin batera (dirulaguntzak, laguntzak, babesak, publikoak edo pribatuak, sarreren salmenta, inskripzioak, etab.). Kasu horretan, gainfinantzaketa sortuko litzateke, zeina aplikatu beharreko araudiak mugatua baitago (bereziki 887/2006 Errege Dekretuaren 32. artikulutik 34.era a arteko artikuluek, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.3 artikulua eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40.3 artikulua). Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldez aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

9.2. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Enpresa bakoitzak eskabide bat egin beharko du proiektu eta laguntza-ildo bakoitzeko (gehienez bi proiektu ildo bakoitzeko).

9.3. Bide hauek baliatu ahal da eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

— Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30-14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean, dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Eskabidea postaz bidaltzen bada, gomendatzen da mezu elektronikoa bat igortzeko bidalketa horren berri emateko, bidalketaren ordezkagiria erantsita, helbide honetara: sectorturismo@vitoria-gasteiz.org.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoa bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, alde batera utzi gabe legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra.

9.4. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.5. Eskabideak epe kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

10.1. Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

– Eranskina: eskabide inprimaki normalizatua <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=93222.pdf>.

– Eranskina: Bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen aitortpena, <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=95837.pdf>.

– Eskabidea egiten duen entitateari buruzko dokumentazioa:

– Entitatearen eta haren ibilbidearen deskribapen laburra.

– Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta-inprimakia.

– 2. ildoaren kasuan, kirol- edo kultura-jarduerak: ekitaldiak Vitoria-Gasteizen kanpo-proiektzio handia eragitea eta kanpoko parte-hartze handia izatea (gutxienez 100 parte-hartzaile, Arabako Lurralde Historikotik kanpokoak). Justifikazioan egiaztatu beharko da.

– Enpresaren egoitza eta helbide fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian ez dutenen kasuan:

- 1. eta 2. ildoetarako: erantzukizunpeko adierazpena, biltzarrak/ekitaldiak gutxieneko parte-hartzaile kopuru bat duela (150 biltzarretarako/300 ekitalditarako) eta horien ehuneko 30, gutxienez, Arabako Lurralde Historikotik eta haren probintzia mugakideetatik kanpokoak edo nazioartekoa dela adierazten duena (justifikazioan egiaztatu beharko da), eta gutxienez ondoko ondoko 2 eguneko iraupena duela.

- 3. ildorako: erantzukizunpeko adierazpena, produktu edo esperientzia turistiko berria Vitoria-Gasteizen dela adierazten duena.

– Pertsona fisikoa bada: nortasun-agiriaren fotokopia.

– Pertsona juridikoa bada:

a) IFZren kopia.

b) Enpresaren eratze-eskrituren kopia.

c) Ordezkaritza-ahalordearen kopia.

d) Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Irabazi asmorik gabeko entitateabada:

a) IFZren kopia.

b) Erakundearen estatutuen fotokopia.

c) Vitoria-Gasteizen dituen kargu eta kideen zerrenda zenbakitua eta eguneratua, laguntza eskatzen den egunean.

d) Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

– Memoria deskriptiboa: egin nahi den proiektuaren memoria, berariaz aipatuz balioesteko den irizpide bakoitza, emaitzen aurreikuspena eta proiektuaren aurrekontua. Gutxienez 5 orri-alde A4 tamainan, gehienez 10.

10.2. Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 12 e) artikuluekin bat, ofizioz konprobatuko da eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituen, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez (eranskina: eskaera). Aurka egiten badu, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikulua ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1. Norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena izango da laguntzak emateko prozedura, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikuluan eta III. kapituluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

12.2. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria edo hark ordezkotzen duena.

– Idazkaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Proiektuen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

– Biltzar eta Turismo Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Zeregin hauek izango ditu balioespen-batzordeak:

1. Jasotako eskabideen balioespen teknikoak aztertzea, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariek haiei buruzko txostena egin ondoren.

2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko/atzera egiteko proposamenak egitea, eta organo instrukzio-egileari helaraztea, laguntzak ebazteko eskumena duen organoari ebazpen-proposamena egiteko.

12.3. Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen-batzorde teknikoak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta eskabideen arteko lehentasuna. Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egin ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeari buruz 2025eko maiatzaren 16an hartutako erabakiarekin bat etorritik.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze-errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

13. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsitatzeko ahalik dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Betekizun eta baldintzak betetzen direla justifikatzea Udalaren aurrean, baita jarduera aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik gauzatu dela eta dirulaguntza ematea ekarri zuen helburua bete dela ere.

2. Erakunde-markaren hedapena: Vitoria-Gasteizko Udalaren erakunde-marka agertu beharko da diruz lagundutako jardueren publizitate orotan, marka inprimatzea edo ikustea ahalbidetzen duen neurrian. Erakunde-markak behar ez bezala erabiltzea saihestu beharko du, berariaz: ezin izango dira markaren eta haren elementuen altuera/zabalera proportzionaltasuna, formak, posizioa, koloreak, tipografiak eta trazuak aldatu.

3. Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita haren Kontu Hartzailatza Nagusiari dagokion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

4. Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, udalari jakinaraztea (eranskina: beste diru-sarrera batzuen aitorpena).

5. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.

6. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

7. Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarte, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Dirulaguntza jaso ahal izateko, ildo bakoitzean aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dute oinarri honetako balioespen-irizpideen arabera.

Irizpide hauei jarraituko zaie aurkezten diren proiektuak balioesteko:

1. ILDOA		
GASTEIZ EGOITZATZAT IZANGO DUTEN BILTZARRAK ANTOLATZEA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	
Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren ezaugarriak	Gehienez	70
Eremu geografikoa	20	
- Lokala (5 puntu)		
- Eskualdekoa (10 puntu)		
- Nazionala (15 puntu)		
- Nazioartekoa (20 puntu)		
Parte-hartzaileen kopurua (bertaratuak)	20	
puntu 1 25 partaideko		
Biltzarraren iraupena	5	
- Egun bat (puntu bat)		
- 2 egun (3 puntu)		
- 3 egun edo gehiago (5 puntu)		
Bertan egingo diren gauen kopurua	15	
puntu 1 20 ostatu-gau bakoitzeko		
Garaia (ekitaldiaren data)	10	
- Goi-denboraldia (0 puntu)		
- Denboraldi ertaina (5 puntu)		
- Behe-denboraldia (10 puntu)		
Promozio-ekintzak	Gehienez	5
Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzailean/ inpaktuen kopuruaren zenbatespena	5	
puntu 1 zabalkunde-ekintza bakoitzeko		
Entitate eskatzailearen balioespena	Gehienez	5
Enpresak antzeko proiektuak antolatzen duen esperientzia	5	
Puntu 1 proiektu bakoitzeko		
Legatua, Jasangarritasuna eta Berdintasuna	Gehienez	20
Biltzarrak utzitako legatua	10	
- Ez da aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarritzko eraginak, adierazlerik gabe (5 puntu)		
- Legatu nabarmena, ekintza zehatz eta eragin-adierazleekin (10 puntu)		
Proiektu jasagarria	5	
puntu 1 egiaztatutako neurri bakoitzeko		
Eragin sozial positiboa berdintasun handiagoa duen gizartea lortzeko: sexismoaren, desberdintasunaren edo sexuagatiko diskriminazioaren aurka egitea, edo genero-ikuspegia barne hartzea plangintza, exekuzio eta ebaluazio faseetan	5	
- Ez dira aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarritzko neurriak (2 puntu)		
- Txertaketa egituratua (5 puntu)		
GUZTIRA		100

2. ILDOA		
GASTEIZ EGOITZATZAT IZANGO DUTEN EKITALDIAK ANTOLATZEA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	
Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren ezaugarriak	Gehienez	70
Eremu geografikoa	20	
- Lokala (5 puntu)		
- Eskualdekoa (10 puntu)		
- Nazionala (15 puntu)		
- Nazioartekoa (20 puntu)		
Parte-hartzaileen kopurua (bertaratuak)	20	
1 puntu por cada 50 participantes		
Ekitaldiaren iraupena	5	
- Egun bat (puntu bat)		
- 2 egun (3 puntu)		
- 3 egun edo gehiago (5 puntu)		
Bertan egingo diren gauen kopurua	15	
Puntu 1 30 ostatu-gau bakoitzeko		
Garaia (ekitaldiaren data)	10	
- Goi-denboraldia (0 puntu)		
- Denboraldi ertaina (5 puntu)		
- Behe-denboraldia (10 puntu)		
Promozio-ekintzak	Gehienez	5
Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/ inpaktuen kopuruaren zenbatespena	5	
puntu 1 zabalkunde-ekintza bakoitzeko		
Entitate eskatzailearen balioespena	Gehienez	5
Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia	5	
Puntu 1 proiektu bakoitzeko		
Legatua, Jasangarritasuna eta Berdintasuna	Gehienez	20
Ekitaldiak utzitako legatua	10	
- Ez da aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarrizko eraginak, adierazlerik gabe (5 puntu)		
- Legatu nabarmena, ekintza zehatz eta eragin-adierazleekin (10 puntu)		
Ekitaldi jasangarriak:	5	
Puntu 1 egiaztatutako neurri bakoitzeko		
Eragin sozial positiboa berdintasun handiagoa duen gizartea lortzeko: sexismoaren, desberdintasunaren edo sexuagatiko diskriminazioaren aurka egitea, edo genero-ikuspegia berraztertzea plangintza, exekuzio eta ebaluazio faseetan	5	
- Ez dira aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarrizko neurriak (2 puntu)		
- Txertaketa egituratua (5 puntu)		
GUZTIRA		100

3. ILDOA: BALORAZIO-IRIZPIDEAK		
HIRIAREN IRUDIA TURISMO-HELMUGA JASANGARRI GISA PROMOZIONATUKO DUTEN TURISMO-PRODUKTU ETA -ESPERIENTZIA BERRIAK SORTU ETA SUSTATZEA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	
Produktu edo esperientzia berriaren ezaugarriak	Gehienez	40
Produktua edo esperientzia lehentasunezko segmentuetan kokatzen da: enogastronomia, ekoturismoa, kultura eta ondarea, kirolak	10	
- Lehentasunezko segmentu batean kokatzen da (5 puntu)		
- Lehentasunezko 2 segmentutan kokatzen da (8 puntu)		
- Lehentasunezko 3 segmentu edo gehiagotan kokatzen da (10 puntu)		
Produktu edo esperientzia oso bat da (eragileen arteko sinergiak sortzea edo baliatzea, tokiko enpresen arteko lankidetzak, zenbait produkturen konbinazioa)	10	
- Producto aislado sin colaboración ni combinación de productos prioritarios (0 puntos)		
- Oinarritzko lankidetzak (5 puntu)		
- Produktu integrala eragile askorekin (10 puntu)		
Zenbatetsitako parte-hartzaileen/erabiltzaileen kopurua	10	
Puntu 1 60 pertsonako		
Produktuaren berrikuntza/originaltasuna	10	
- Lehendik dagoen produktua (0 puntu)		
- Lehendik dauden produktuak egokitzea edo hobetzea (5 puntu)		
- Balio-proposamen bereizia duen produktu berritzailea (10 puntu)		
Gasteiz sustatzea eta posizionatzea	Gehienez	34
Ekitaldiaren eremu geografikoa eta xede-hartzaileen profila	10	
- Lokala (3 puntu)		
- Eskualdekoa (5 puntu)		
- Nazionala (8 puntu)		
- Nazioartekoa (10 puntu)		
Produktua ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/irabazleen kopuruaren zenbatespena	8	
Puntu 1 zabalkunde-ekintza bakoitzeko		
Sustapen-jardueren maiztasuna eta aurrekontua	8	
- Ez dira zehazten edo inkoherenteak dira (0 puntu)		
- Planificación básica con calendario o presupuesto parcial (4 puntos)		
- Plangintza osoa, koherentea eta zehatza (8 puntu)		
Gasteiz turismo-helmuga jasangarri, enogastronomiko, ekoturistiko, kultura-ondare kirol-helmuga gisa kokatzen laguntzea	8	
- Ekarpene argirik gabe (0 puntu)		
- Ekarpene orokorra (4 puntu)		
- Ekarpene argia ekintza zehatzekin (8 puntu)		
Entitate eskatzailearen balioespena	Gehienez	11
Esperientzia antzeko turismo-produktuak sortzen eta abian jartzen	5	
1 puntu por cada producto		
Esperientzia turismo-produktuak sortzen eta abian jartzen, lehentasunezko segmentuetan: enogastronomia, ekoturismoa, kultura eta ondarea, kirola	3	
- Segmentu batean (puntu 1)		
- 2 segmentutan (2 puntu)		
- 3 segmentu edo gehiagotan (3 puntu)		
Produktu-klubetako kide izatea edo zigilu turistikoak edukitzea: Ekoturismoko kluba, Euskadi Gastronomika, Euskadi Confidential, Kode Etiko Turistikoa edo eskualdeko edo estatuko erakundeek sustatutako beste batzuk	3	
- Klub/zigilu bat (puntu 1)		
- 2 klub/zigilu (2 puntu)		
- 3 klub/zigilu edo gehiago (3 puntu)		

3. ILDOA: BALORAZIO-IRIZPIDEAK		
HIRIAREN IRUDIA TURISMO-HELMUGA JASANGARRI GISA PROMOZIONATUKO DUTEN TURISMO-PRODUKTU ETA -ESPERIENTZIA BERRIAK SORTU ETA SUSTATZEA	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	
Legatua, Jasangarritasuna eta Berdintasuna	Gehienez	15
Produktuarekin lortutako legatua	5	
- Ez da aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarrizko eraginak, adierazlerik gabe (3 puntu)		
- Legatu nabarmena, ekintza zehatz eta eragin-adierazleekin (5 puntu)		
Produktuak kontuan hartzen ditu jasangarritasun-neurriak:	5	
Puntu 1 egiaztatutako neurri bakoitzeko		
Eragin sozial positiboa berdintasun handiagoa duen gizartea lortzeko: sexismoaren, desberdintasunaren edo sexuagatiko diskriminazioaren aurka egitea, edo genero-ikuspegia barne hartzea plangintza, exekuzio eta ebaluazio faseetan	5	
- Ez dira aurreikusi (0 puntu)		
- Oinarrizko neurriak (2 puntu)		
- Txertaketa egituratua (5 puntu)		
GUZTIRA		100

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.1 m artikulua betez, genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak sartu dira balioespen-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 5eko balioespena dute.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzeko

Laguntzaren zenbatekoa onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da gehienez ere.

Nolanahi ere, hiru laguntza-ildoetan, aurreko ehunekoa aplikatuta lortutako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da 10.000,00 eurotik gorakoa izan aurkeztutako proiektu bakoitzerako.

Entitate eskatzaileetako bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, prozedura hau baliatuko da:

— Lehenengo, eskabideak aztertu eta puntuatuko dira, laguntza-ildo bakoitzaren balioespen-irizpideen arabera. Ildo horretako eskabide guztiei esleitutako puntuak batuko dira.

— Bigarren, ildo bakoitzari dagokion diru-zenbatekoa zati ildo horretan lehiatzen diren eskabideen puntu guztiak egingo da. Emaiz puntu bakoitzeko diru balioa izango da; hori eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuak biderkatuz lortzen den kopurua izango da bakoitzarentzako dirulaguntzarako proposamena.

Ateratzen den kopuruak ezin izango du inolaz ere eskatutakoa gainditu, ezta ildo bakoitzeko adierazitako gehienekoak ere.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Honela ordainduko da dirulaguntza:

- Ematen den unean, laguntzaren ehuneko 70.
- Gainerako ehuneko 30a justifikazio-agiriak jaso ondoren.

Nolanahi ere, Biltzar eta Turismo Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, egiaztatuko du onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa azkenean gauzatu dela eta justifikatutako zenbatekoarekin bat datorrela. Guztira exekutatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta haiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1.b eta c artikuluan ezarritako kasuetan.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean adierazitako kontu korrontean.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, eta ezta ere artean ere zordun bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa funtsezko gertatuz gero, gerta liteke ebazpena aldatu beharra, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

19.1. Justifikazioari buruzko dokumentazioa dirulaguntza emateko ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera aurkeztu ahal izango da, eta 2027ko otsailaren 28a izango da azken eguna.

Egindako gastuak egiaztatzeko fakturak gehienez 2027ko urtarrilaren 31n jaulki eta ordaindutakoak izan beharko dira.

Udalaren webgunean eskura daitezke justifikatzeko formularioak:

<http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones>.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

19.2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren azken balantzearen ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Vitoria-Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik.

19.3. Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira:

— Egindako proiektuaren eta lortutako emaitzen memoria deskriptiboa. Horretarako, datu hauek erantsiko dira: dirulaguntza jaso duen jardueraren harira egindako irudi, egitarau, argitalpen eta kartelak, hedabideetako agerpenak eta bestelako dokumentazio grafiko nahiz idatzia (gehienez, 15 orri, A4 tamainan).

— Parte-hartzaile kopuruaren, jatorriaren, gau-ostatu kopuruaren eta abarren zerrenda zehatza.

— Proiektuaren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduarekin batera (eranskina: justifikazio-kontu arrunta). Alderdi hauek hartu beharko ditu barne:

1. Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako funtsen justifikazioa, hau da, diruz lagundutako jarduerak sortu dituen diru-sarrerak guztien justifikazioa, honakoak zehaztuta: diru-sarrera publiko edo pribatuak (laguntzak, babesak...), inskripzioak edo sarrerak, merchandisingaren edo produktuen salmenta eta abar. Zenbatekoa eta diru-sarrera zer erakunde edo kontzeptutatik datorren adieraziko da.

2. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda zenbakitua (excel taulan), honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia eta -data, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan (oinarria, BEZa eta guztizkoa banakatuta) eta ordainketa-data. Era berean, ezinbestekoa da zutabe gehigarri batean zehaztea proiektuaren zer diru-sarrerari egozten zaion gastu hori (osorik edo ehunekotan).

3. Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

4. Langile-gastuak eta gizarte-segurantzakoak (nominen, gizarte-segurantzako inprimakien eta horien ordainagirien bidez justifikatuak).

5. Fakturak edo gastu-egiaztagiriak eta dagozkien ordainagiriak.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, emandako laguntzak xede aurreikusietara behar bezala bideratzen direla bermatzeko, eta, hala, eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek. Horretaz gain, udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea dagokiola erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. kapituluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Pertsona horiek, zeinek bere datuak ikusi, aldatu, ezereztu edo kontra egin nahi izanez gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko dute.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakartako printzipioak: giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

24. Euskararen erabilera eta hizkuntza-normalizazioko printzipioen aplikazioa

Hitzarmena egikaritzean aintzat hartuko da euskararen eta gaztelaniaren —bi hizkuntzen— koofizialtasuna, eta jarduera elebitasun-irizpideen eta herritarren hizkuntza-eskubideen arabera gauzatu beharko da, halaxe xedatzen baitute 10/1982 Legeak, Autonomia Estatutuak, 19/2024 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administrazioa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak, eta Vitoria-Gasteizko Udalean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 8an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
MARÍA NANCLARES CABALLERO

ERANSKINAK

<http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones>.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

Eranskina: eskabide-orri normalizatua

<https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=93222.pdf>.

Eranskina: bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen aitortpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=adjunto&nombre=95837.pdf>.

Eranskina: justifikazioko kontu arrunta

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/69/41/96941.pdf>.

Memoria deskriptiboaren eredua, 1. ildo. Biltzarren antolaketa:

1. Biltzarraren ezaugarriak:

- 1.1. Biltzarraren eremu geografikoa: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.
- 1.2. Parte-hartzaileen kopurua aurrez aurre eta streaming bidez.
- 1.3. Biltzarraren data. Biltzarraren iraupena Hirian egiten diren gauen kopurua eta justifikazioa.

2. Promozio-ekintzak:

2.1. Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

- 3.1. Enpresak antzeko biltzarrak antolatzen duen esperientzia.
- 3.2. Entitate eskatzailearen proiektzioa eta jarduera-eremua: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.

4. Jasangarritasuna:

- 4.1. Biltzar jasangarria, antolatzean egin beharreko ekintzen arabera balioets daitekeena.

5. Legatua:

5.1 Legatua da kongresu edo ekitaldi baten aurretik, bitartean eta ondoren planifikatutako jarduerak epe luzera sortutako inpaktua. Ekitaldiaren antolatzaileak edo preskriptoreak bultza dezake, bere misioa eta ikuspegia zabaltzeko, edo bere helburu estrategikoekin bat datozen legatu-proiektuak sustatzen dituen helmuga anfitrionak. Berehalako onuratik harago, legatuak gizarte-, kultura-, ingurumen- eta hezkuntza-dimentsioak hartzen ditu, adierazle espezifiko bidez neurtzen da, eta komunikatu egiten da garapen jasangarriari egiten dion ekarpena maximizatzeko.

6. Euskara:

6.1. Biltzarraren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

7. Berdintasuna:

Biltzarra antolatzean eta garatzean berdintasuna sustatzen duten ekintzak: emakumeek ehuneko 40 edo gehiago parte hartzea erakundearen erabaki- eta ordezkaritza-organoetan, erakundearen oinarri sozialean, proiektuaren antolaketan eta exekuzioan.

Memoria deskriptiboaren eredua, 2. ildo. Biltzarren antolaketa:

1. Ekitaldiaren ezaugarriak:

- 1.1. Ekitaldiaren eremu geografikoa: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.
- 1.2. Parte-hartzaileen kopurua aurrez aurre eta streaming bidez.
- 1.3. Ekitaldiaren data. Ekitaldiaren iraupena. Hirian egiten diren gauen kopurua eta justifikazioa.

2. Promozio-ekintzak:

2.1. Hiria eta bertako turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-baliabideak ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

3.1. Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia.

3.2. Entitate eskatzailearen proiektzioa eta jarduera-eremua: lokala, eskualdekoa, estatukoa, nazioartekoa.

4. Jasangarritasuna:

4.1. Biltzar jasangarria, antolatzean egin beharreko ekintzen arabera balioets daitekeena.

5. Legatua:

5.1. Legatua da kongresu edo ekitaldi baten aurretik, bitartean eta ondoren planifikatutako jarduerak epe luzera sortutako inpaktua. Ekitaldiaren antolatzaileak edo preskriptoreak bultza dezake, bere misioa eta ikuspegia zabaltzeko, edo bere helburu estrategikoekin bat datozen legatu-proiektuak sustatzen dituen helmuga anfitrioiak. Berehalako onuratik harago, legatuak gizarte-, kultura- eta hezkuntza-dimentsioak hartzen ditu, adierazle espezifikoek bidez neurtzen da, eta komunikatu egiten da garapen jasangarriari egiten dion ekarpena maximizatzeko.

6. Euskara:

6.1. Ekitaldiaren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

7. Berdintasuna:

7.1. Ekitaldia antolatzean eta garatzean berdintasuna sustatzen duten ekintzak: emakumeek ehuneko 40 edo gehiago parte hartzea erakundearen erabaki- eta ordezkaritza-organoetan, erakundearen oinarri sozialean, proiektuaren antolaketa eta exekuzioan.

Memoria deskriptiboaren eredia, 3. ildo. Produktu eta esperientzia turistiko berriak sortzea eta sustatzea:

1. Produktu edo esperientzia berriaren ezaugarriak:

1.1. Produktua edo esperientzia lehentasunezko segmentuetan kokatzen da: enogastronomia, ekoturismoa, kultura, kirolak.

1.2. Produktu edo esperientzia oso bat da (eragileen arteko sinergiak sortzea edo baliatzea, tokiko enpresen arteko lankidetzak, zenbait produkturen konbinazioa).

1.3. Zenbatetsitako parte-hartzaileen/erabiltzaileen kopurua.

1.4. Produktuaren berrikuntza/originaltasuna.

2. Vitoria-Gasteiz sustatzea eta posizionatzea:

2.1. Ekitaldiaren eremu geografikoa (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, nazioartekoa) eta xede-publikoaren profila.

2.2. Produktua ezagutarazteko ekintzen kopurua eta deskribapena, eta bakoitzak izango duen parte-hartzaileen/inpaktuen kopuruaren zenbatespena.

2.3. Sustapen-jardueren maiztasuna eta aurrekontua.

2.4. Vitoria-Gasteiz turismo-helmuga jasangarri, enogastronomiko, ekoturistiko, kultural eta kirol-helmuga gisa kokatzen laguntzea.

3. Entitate eskatzailearen balioespena:

3.1. Enpresak antzeko ekitaldiak antolatzen duen esperientzia.

3.2. Esperientzia turismo-produktu jasangarriak, enogastronomikoak, ekoturistikoak, kulturalak edo kirolekoak sortzen eta abian jartzen.

3.3. Produktu-klubetako kide izatea edo zigilu turistikoak edukitzea: Ekoturismoko kluba, Euskadi Gastronomika, Euskadi Confidential, Kode Etiko Turistikoa edo eskualdeko edo estatuko erakundeek sustatutako beste batzuk.

4. Jasangarritasuna:

4.1. Produktuak edo esperientziak jasangarritasun-neurriak jasotzen ditu (helburuak/jarduerak/adierazleak).

4.2. Jarduerak edo esperientziak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurriak aurreikusten dira.

5. Legatua:

5.1. 5.1.1. Legatua da kongresu edo ekitaldi baten aurretik, bitartean eta ondoren planifikatutako jarduerak epe luzera sortutako inpaktua. Ekitaldiaren antolatzaileak edo preskriptoreak bultza dezake, bere misioa eta ikuspegia zabaltzeko, edo bere helburu estrategikoekin bat datozen legatu-proiektuak sustatzen dituen helmuga anfitrionak. Berehalako onuratik harago, legatuak gizarte-, kultura-, ingurumen- eta hezkuntza-dimentsioak hartzen ditu, adierazle espezifiko bidez neurtzen da, eta komunikatu egiten da garapen jasangarriari egiten dion ekarpena maximizatzeko.

6. Euskara:

6.1. Produktuaren komunikazioan eta garapenean euskara erabiltzea (web-orria, sare sozialak, prentsa-oharrak, irudi korporatiboa, gainerako komunikazio-euskarriak, hitzaldiak, seinaleak, ekitaldi elebiduna edo euskaraz).

7. Berdintasuna:

7.1. Ekitaldia antolatzean eta garatzean berdintasuna sustatzen duten ekintzak: emakumeek ehuneko 40 edo gehiago parte hartzea erakundearen erabaki- eta ordezkaritza-organoetan, erakundearen oinarri sozialean, proiektuaren antolaketan eta exekuzioan.